

**Ingurune ekonomikoa**

**BPGda osagaien arabera. Aldakuntza tasa<sup>(1)</sup>**

	URTEKOA		HIRUHILEKOKOA				
	2005	2006	II-2006	III-2006	IV-2006	I-2007	II-2007
Nekazaritza	-11,5	1,3	3,7	3,8	7,5	5,9	9,7
Industria	4,4	4,8	4,5	4,6	4,6	4,9	4,6
Eraikuntza	5,3	5,1	5,5	5,0	4,9	4,4	4,3
Zerbitzuak	3,6	3,5	3,4	3,5	3,6	3,7	3,7
Kontsumoa	3,8	3,9	3,9	3,8	3,7	3,7	3,7
KEG <sup>(2)</sup>	6,3	6,3	6,2	6,2	6,3	6,6	6,5
Eskaria	4,5	4,6	4,6	4,5	4,5	4,5	4,5
Esportazioa	5,1	7,4	5,4	8,2	8,3	6,5	8,9
Inportazioa	6,0	7,9	6,0	8,7	8,8	7,0	9,1
<b>BPG</b>	<b>3,9</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>	<b>4,1</b>	<b>4,1</b>	<b>4,1</b>


Iturria: Eustat. (1) **Bolumen kateatua.** (2) **Kapital eraketa gordina**

hurrenez hurren). Eskaintzaren ikuspegitik aztertuta, lehen sektoreak lortu duen hazkunde handia nabarmentzen da (%9,7), nahiz guztirako hazkundeari egin dion ekarpena apala den, ekonomia oro har harturik duen pisu erlatiboa txikia da eta. Industri sektoreak, bere aldetik, hazkunde nabarmenari eutsi dio (%4,6), eta berriro ere ekipo-ondasunen azpisektorea izan da indar horren sostengua. Eraikuntzari dagokionez, berriz, honen hazkunde tasak behera egin du atzera (%4,3), nahiz oso maila txikian izan. Horrela, 2006ko hirugarren hiruhilekoan hasitako dezelerazio bidetik jarraitu du. Zerbitzu sektorea, aldiz, antzeko tasetan mantendu da (%3,7).

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren urtetik urterako hazkundera %4,1ekoa izan da 2007ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko bi hiruhilekoetako bezalako, Euro Eremuko ekonomia nagusiak hozten ari diren testuinguruan. Hartara, hazkunde hori Estatuak oro har lortu duena (%4) baino 0,1 puntu handiagoa izan da, eta Euro Eremuak lortu duena (%2,5) baino dezente handiagoa. Eskariaren ikuspegitik aztertuta, kontsumoaren kemena (%3,7koa urte artekoa) eta inbertsioarena (%6,5) mantendu dela azpimarratu behar da, kanpo sektorearen azelerazioarekin batera. Ildo honetatik, esportazioek zein inportazioek aurreko hiruhilekoetako hazkunde tasak baino nabarmen handiagoak izan dituzte (%8,9 eta 9,1eko tasa,

**Enpleguaren egoera**


**Biztanleria aktiboa, landuna eta soldatakoa (EAE, milatan)**



\* Iturria: Eustat.

Aurreko hiruhilekoan bezala, 2007ko bigarren hiruhilekoan biztanleria aktiboa pixka bat hazi da, urtetik urterako datuei erreparatuta (%0,3). Biztanleria landunaren urtetik urterako hazkundera %1,1 izan da (%3,4 Estatuan), hortaz, nabarmen gutxitu da berriro ere biztanleria langabea, izan ere, 33.900 laguneko izatera jaitsi da (-%17,7, 2006ko aldi berdinen aldean). Halatan, bada, 2007ko bigarren hiruhilekoko langabezia tasa %3,4ko mailara jaitsi da (%4,2 2006ko aldi berdinean), eta lehen aldiz berdindu dira emakumezkoen eta gizonezkoen tasak. Osterantzean, erregistratutako langabezia %8,2 murriztu da hiruhileko honetan, 2006ko aldi berdinen aldean.


**Soldatako biztanleria kontratu motaren arabera (ehunekotan)**



dira hazkunde tasa horiek, hurrenez hurren, 2007ko bigarren hiruhilekoan jakinarazitako kontratuei dagokienez INEMek emandako datuen arabera. Behin-behinekotasunak sexuaren arabera duen eraginari dagokionez, kasu biotan hobera egin du, baina oraindik ere emakumearen egoera da txarrena (%23,1, %18,9ko tasaren aurrean); are gehiago, kontraturik ez dutenen tasan ere kopuru handiagoa dagokie (%6koa, gizonezkoena %0,7koa den bitartean). Sektoretako bilakaerak agerian uzten duenaren arabera, eraikuntza izan da 2007ko bigarren hiruhilekoan bere enplegu-maila pixka bat murriztu duen bakarra (%-0,6).

**Negoiazio kolektiboa**

**Negoiazio kolektiboaren segimendua  
(EAEko negoziazio kolektiboak 570.734 lagun ukitzen ditu)**



**■ BERRITU GABEKO HITZARMENAK:** Indarraldia amaitu eta aztergai dugun hilerata arte berritu ez diren hitzarmenek ukitutako langileak. 443 hitzarmen dira.

**■ 2007an ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK:** 2006an erregistratu eta urte bererako indarraldia duten hitzarmenak ukitutako langileak (hiletik hilerata metatutako balioak). 165 hitzarmen dira.


**■ AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK:** 2007rako indarraldia duten eta 2006ko abenduaren 31ra arte erregistratutako urte anitzeko indarraldiko hitzarmenak ukitutako langileak. 370 hitzarmen dira.

**Iturria:** Geuk egina Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren informazioan oinarriturik.

2007ko urtea hastean dagoeneko hainbat hitzarmen zegoen berrituta. Hauek negoziazio kolektiboak ukitzen dituen lagunetatik %30,5 hartzen zuten, eta urteko lehen sei hilabete hauetan zehar beste 165 hitzarmen erregistratu dira, guztira beste 56.865 lagun ukituz (%10). Hartara, %59,5 ukitzen duten hitzarmenak berritzea falta da. Araban sektoreko 5 hitzarmen daude berritzeko, eta metalaren industria nabarmendu beharra dago, 2003az geroztik berritu gabe dagoelako (azken hau estatutuz kanpoko itun bat izan zen); Bizkaian sektoreko 28 hitzarmen falta dira (%65,7 enplegu mailan); horien artean metal eta zuraren industria (2003az geroztik) dago, baina beste batzuek ere denbora luzeagoa daramate: ile-apaindegiek (2001etik), abokatuen bulegoek (2000z geroztik), eraikuntzako materialek (2002az geroztik) eta beira lauzko manufaktura (2002az geroztik). Gipuzkoan sektoreko 35 hitzarmen daude berritu gabe (dagokien enpleguaren %75,9), horietatik 18 2003 edo lehenagotik.. Geldialdi egoera honetan badugu oso atzeratuta zeuden hitzarmen batzuk berritzeko lortutako hainbat akordioaren berri, baina erregistratu gabe daude oraindik (esate baterako, Gipuzkoako ehungintzako merkataritza, eta bulegoak). Eta lurralde arteko eremuan, berri, berritu gabe dauden sektoreko lau hitzarmenen artean ikastolena dago, 2005az geroztik berritu gabe baitago. 2007an erregistratutako sektoreko

hitzarmenak negoziatzeko prozesuek 283 egun iraun dute, batez beste, baina kopuru hau nahasgarria gertatzen da; izan ere, batzuetan atzerapen erantsi bat gertatzen da negoziazio-mahaien eraketa formalean, negoziazioetan akordioak lortzeko dauden zailtasunen islatzat. Enpresako hitzarmenetan, berri, %43,6 daude oraindik sinatu gabe, eta eremu horretako langileen %44,5 ukitzen dituzte.

**Itundutako soldata igoeren eta inflazioaren bilakaera**




(\*) 2007ko ekainaren 30era arte erregistratutako hitzarmenetan

Berritutako hitzarmen hauetan itundutako soldata igoera (batez besteko haztatua langile kopuruaren arabera) %3,61ekoa izan da - Estatuan oro har %2,86koa-. Kasu biotan soldatak berrikusteko klausulen eraginak oraindik jasotzeko badaude ere, aipatzekoa da 2006rako itundutako igoerarekiko (%4,42) izan den jaitziera nabarmena; honen eragile nagusia erreferentzia nagusia izaten den urte arteko inflazio tasa murriztu izana izan da. Era berean, 2000ko urteaz geroztik itundutako soldata igoera EAEko azken hamabi hilabeteetako batez besteko inflazioaren gainera dago eta, beraz, soldata igoerak hitzarmen horien bitartez erregulatuta dituzten pertsonen erosteko ahalmena handitu egin da. Funtzio eremuaren arabera aztertuta, sektoreko hitzarmenetan itundutako soldata igoera %3,78koa izan da, enpresetakoetan

izandakoa baino handiagoa alegia, hauetan %3,15ekoa izan baita. Bestalde, lurralde arteko hitzarmenetan izan da igoera handiena (%4,78), batez ere irakaskuntza pribatuan lortutako akordioari esker (%4,85). Erreferentzia bakartzat EAEn erregistratu diren hitzarmenak hartzen baditugu, soldata igoera %3,93koa izan da, hau da, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan itundu dutena (%2,51) baino askoz handiagoa. Osterantzean, 2007ko urterako berritutako hitzarmen guztiak berriro hartzen baditugu, hitzarmen berrietan itundutako soldata igoerak (%3,94 2007an erregistratutakoetan) aurreko urteetan erregistratutako hitzarmenetan 2007rako itundu diren soldata igoerak (%3,5) baino handiagoak dira.

Hitzarmen kolektiboetan itundutako lanaldi murrizketak



Lanaldiari dagokionez, ikusten dugu gero eta txikiagoa dela lanaldi murrizketak ezartzen dituzten hitzarmenen kopurua (berritutako hitzarmenen %31,8). Dagoeneko ohikoa den moduan, EAEn erregistratu diren hitzarmenetan dugu murrizketa adosten duten hitzarmen kopuru handiena (%39); EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan, berriz, kopuru hau %17,2ra jaisten da. Murrizketaren zenbatekoa (3,4 ordu urtean) 2006an indarrean zeuden hitzarmenetan itundutakoa baino handixeagoa izaten ari da, orduan 2,9 ordukoa baitzen; dena den, duela urte batzuk itundutako murrizketen azpitik dago, nabarmen. Beraz, 1999 baino lehen ituntzen ziren murrizketen antzeko mailalara itzultzen ari gara. Bestalde, kontuan hartu behar da hitzarmen asko berri gabe daudela,

eta eremu horietan lanaldia inolako aldaketarik gabe mantentzen dela formalki, zenbait kasutan aspaldiko urteetan inolako aldaketarik gabe gainera. 2007rako berritutako hitzarmenetan, itundutako lanaldia 1.679 ordukoa izan da urte honetarako, 1.681 ordukoa sektoreko hitzarmenetan, eta 1.673koa enpresako hitzarmenetan. Era berean, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan itundutako lanaldia 1.728 ordukoa da, hau da, EAEn erregistratu diren hitzarmenetan finkatutako 1.665 ordukoa baino nabarmen luzeagoa.

Lan gatazkak

EAEn egindako lan grebak

		2002	2003	2004	2005	2006	2007(*)
ARABA	Grebak	41	38	41	36	57	27
	Parte hartz.	173.779	6.883	11.680	6.274	6.359	2.403
	Egunak	182.358	43.795	47.338	32.990	12.036	4.987
BIZKAIA	Grebak	94	118	116	85	109	57
	Parte hartz.	260.813	24.043	47.620	39.817	44.543	20.065
	Egunak	294.126	128.756	197.233	56.673	122.216	51.088
GIPUZKOA	Grebak	56	65	86	55	58	43
	Parte hartz.	169.626	43.868	41.758	7.025	11.675	9.577
	Egunak	182.344	167.315	361.584	16.525	34.181	28.885
EAE	Grebak	191	221	243	176	224	127
	Parte hartz.	604.218	74.794	101.058	53.116	62.577	32.045
	Egunak	658.828	339.866	606.155	106.188	168.433	84.960

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.  
Egunak: Lanik egin gabeko egunak. (\*) Urtarril-ekaina epea

2007ko lehen sei hilabeteetan zehar 127 greba izan dira guztira EAEn; partaideak 32.045 izan dira, eta lanik egin gabeko egunak, berriz, 84.960. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, greba kopurua jaitsi egin da (-%11,8), baina parte hartzaileak gehiago izan dira (%11,9), lanik egin gabeko egun kopurua bezalaxe (%45,8).

Greba horietarako arrazoiei dagokienez, %54,3 negoziazio kolektiboko desadostasunek eragindakoak izan dira; eta ohi den moduan, hauexek izan dira eragin handiena izan dutenak, urteko lehen seihileko honetan zehar grebak direla eta lanik egin gabeko egunetatik %68,3 horietatik etorri baitira.

Egin diren greba guztietatik, 116

enpresakoak izan dira, eta 11 sektorekoak. Azken hauek lanik egin gabeko egun kopuru osoaren %26,5 izan dira. Sektoreko greba hauek, Bizkaian, eraikuntza sektorean ezbehar-kopuruagatik, eta arte grafikoen, eraikin eta lokalen garbiketan eta merkataritzan kasuan kasuko hitzarmenaren negoziaketagatik sortu dira; Gipuzkoan, ore, paper eta kartoi sektorean eta arte grafikoen, hitzarmenaren negoziazioa izan da zioa. Telemarketingaren sektorean ere hainbat greba izan dira Bizkaian eta Gipuzkoan, sektore honetan EAE mailan hitzarmen berria lortzeko, eta Gipuzkoan ere drogeria eta lurrin-denden sektorean lurralde honetarako hitzarmena lortu nahia izan da sortzailea. Enpresa eremuko greben artean, %76,7 sektore pribatuan izan dira, eta hauek eremu horretan lanik egin gabeko egunen %25,7 eragin dituzte. Beraz, sektore publikoan egindako grebetan pertsona gehiagok hartu du parte (11.088 partaide izan dira sektore publikoko grebetan, eta 6.291 pribatukoetan), eta, hartara, greba horiek askoz eragin handiagoa izan dute. Sektore publikoko greba hauen artean Justizia Administrazioan eta unibertsitateaz aparte ikastetxeetan hainbat lan-baldintzaren negoziaketan izandakoak nabarmentzen dira, barneko mediku egoiliarrek eskatutako aldaketak direla-eta Osakidetzan eginkoekin batera.

Lurraldeak banan bana aztertuta, lan gatazken bilakaera desberdina izan dela ikusten da. Araban jaitsiera orokor bat nabarmentzen da: greba kopurua %22,9 jaitsi da, partaideena %28,1, eta lanik egin gabeko egunak %8,4 gutxiago izan dira. Gipuzkoan, aitzitik, igoera orokor bat antzematen da; izan ere, greba kopuruak %19,4 egin du gora, partaideak %54,9 gehiago izan dira, eta lanik egin gabeko egun kopurua %110,4 hazi da. Bizkaian, osterantzean, %21,9ko jaitsiera izan da greba kopuruan, eta %5 eta %30,7ko igoerak, hurrenez hurren, partaideei eta lanik egin gabeko egunei dagokienez.

## Enplegua erregulatzeko espedienteak

### EAEko administrazioak baimendutako enplegua erregulatzeko espedienteak

	Espedienteak <sup>(1)</sup>	Ukitutako langileak			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Amaiera
2002	211	5.650	21	3.331	2.298
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007(*)	156	2.260	9	1.680	571


(1): EAEko administrazioak baimendutako espedienteak. (\*) Ekaina arte metatutako datuak. **Iturria:** Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

2007ko lehenengo sei hilekoan 156 izan dira enplegua erregulatzeko baimendutako espedienteak Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horiek 2.260 langile ukitu dituzte guztira.. Horrenbestez, kopuru horiek %54,5 eta %22 murriztu dira, hurrenez hurren, aurreko ekitaldiko epe berdinarean aldean. Aipatzekoa da batez ere etete espedienteek ukitutako langile kopurua handitu dela (1.680 langile), amaiera espedienteek ukitutako langile kopuruak, berriz, behera egin duen bitartean (571 langile). Espedienteak kausaren arabera aztertuz gero, kausa

finantzarioez eta eskariak bestelakoekin lotutakoak izan dira ugariak (120 espediente, eta 1.597 langile), nabarmen egin baitute gorantz aurreko ekitaldiarekiko (espediente kopuruak %185,7 egin du gora, eta hauek ukitutako pertsonak %160,9 gehiago izan dira). Aitzitik, eskariarekin lotutako arazoiek eragindako espedienteak (8 espediente eta 294 langile izan dira) jaitsi egin dira aurreko ekitaldiarekiko, %-65,2 eta %-47,3 izan baitira, hurrenez hurren. Era berean, baina maila apalagoan, kausa finantzarioek eragindako espedienteek ere (369 langile ukitu dituzten 28 espediente izan dira) bilakaera positiboa izan dute, ezen espediente kopurua %22,2 jaitsi da, eta ukitutako langileak %45,9 gutxiago izan dira. Bestalde, espediente horietatik %56,4 (ukitutako enpleguaren %46,4) lehen sektorean gertatu dira, antxoarekin lotutako arazoek ildotik, eta hauen ondorio nagusiak enpleguaren aldi baterako eteteak izan dira. Espedienteetatik %22,4 industrian gertatu dira (ukitutako enpleguaren %37,9), baina, kasu honetan, ukitutako 856 langileetatik 410en kasuan amaiera espedienteak izan dira. Espedienteetatik %4,5 eraikuntzan gertatu dira (ukitutako enplegutik %9,3), eta hauen ondorio nagusia aldi baterako eteteak izan dira. Beste %16,7 bat zerbitzuetan gertatu da, eta hauek 145 pertsona ukitu dituzte (ukitutako enpleguaren %6,4). Pertsona hauetatik 68ren kasuan aldi baterako eteteak izan ziren, eta 76ren kasuan enplegu amaierak.

## Lan ezbeharrak

### Ezgai egoeran egon diren langileen kopuruaren aldakuntza (ehunekotan) aurreko urtearen aldean



(\*) Ekainera arte metatutako datuak: **Iturria:** Osalan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

2007ko lehen erdialdean oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan lan ezbeharren ondorioz ezgai egoeran egon diren langileen kopurua (24.233 lagun) %16 jaitsi da aurreko urteko aldi berdinarean aldean, eta jaitsiera hori orokorra izan da. Halatan, bada, ezbeharrek lan jardunean jotako kopurua (21.370) zein ezbeharra in itinere jasandakoen kopurua (3.659) jaitsi egin da, lan gaixotasunek jotako kopurua (398) bezalaxe. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, kopuru hauetan %13,8, %8,9 eta %70,5eko jaitsierak ikusten dira, hurrenez hurren (kontuan hartu behar da lan gaixotasunen jakinarazpen sistema berria, murriztaileagoa da eta).

Lehenik eta behin, ezgai egoera eragin duen ezbeharra lan jardunean jasan dutenei erreparatzen badiegu, eta sektorez sektore aztertzen badugu, nabarmentzen da sektore

guztietan behera egin dutela kopuruak. Hortaz, nekazaritza-arrantza sektorea izan da, lan ezbeharren bat izandako 427 pertsonaz, jaitsiera handiena izan duena (%-20,2). Eraikuntza sektorea dabilkio atzetik, ezbeharren bat izandakoak 3.816 izan baitira (%-18). Ondoren zerbitzuen sektorea dator, 8.241 istripuz (%-13,5). Azkenik, industriaren sektoreak izan du jaitsierarik txikiena (%-11,8), lan ezbeharren bat izandako 8.886 pertsonaz. Lan jardunean jasandako ezbeharrek larritasunaren arabera aztertuz gero, istripu arinen bat jasandakoak (21.194) %13,9 gutxiago izan dira, istripu larriren bat jasandakoak (155) %12,4 gutxiago, eta heriotza ekarri duten istripuek jotakoak (21 lagun hil dira) %10,5 gehiago izan dira.

Istripu kopuruaren bilakaera hau enplegua hazten ari den testuinguruan kokatu behar dugu. Halaz, istripu kopurua biztanleria landunaren bilakaerarekin lotzen badugu (lan jardunean izandako ezbeharrek mila landuneko), nabarmentzen da lan ezbeharren eraginak behera egin duela berriro ere. Horrenbestez, 2007ko lehen sei hilabeteetan zehar 22,3 ezbehar izan dira lan jardunean mila landuneko (2006ko aldi berdinean 26,3 izan ziren). Joera bera agertzen da, oro har, azterketa sektorez sektore egiten badugu. Zehazki, lehen sektorean adierazle honek erakusten digu 35,4 ezbehar izan direla lan jardunean mila landuneko (2006ko lehen sei hilekoan 44,4), industria sektorean 36,1 (2006an 42,1), eraikuntzan 46,5 (2006an 58,8) eta zerbitzuetan 13,4 (2006an 15,6). Datu hauen bilakaera ona bada ere, behin eta berriro aipatu behar dugu heriotza eragiten duten istripuetan izandako gorakada handia.